

HIRIGINTZA FITXA. - 12 SO. BERDEGUNEA. ITZIARKO SANTUTEGIAREN BABESGUNEA.
ITZIAR ALDEA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.****1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

1985eko Hiri Antolaketako Arauetan ez dago aurreikusia.

1.2. HIRI EGITURA.

Lurraldearen egitura organikoa eratzen duen elementua da, herriko lorategietako bat izaki, bai kokapenagatik bai bere ezaugarriengatik.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA: 8.944 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : HIRITARRA.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Hiriko espazio libreen zona (11. artikulua: F.1).

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Arau hauen ondorioetarako, hirigintzako esku-hartze alderdi bakartzat hartzen da.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Itziarko santutegia babesteko irizpidea finkatzea.

Antolamenduaren eta plazaren azalera areagotzea ahalbidetzea, gaur egun hiritarrezinak diren espazio libreak gaineratuz; espazio horiek sistema orokorraren mendebaldean daude, mendebaldeko sarbidearen behin betiko trazatuak mugatzen dituen lurretan (17.1 GU. Zabaltxo).

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Oinezkoentzako ibilbideak..... 875 m²

Berdeguneak 8.175 m²

3.2. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Ez da ezarri.

Eraikuntza. Ez dago baimendua.

Erabilera Berdegunea. Oinezkoentzako pasealekua. Plaza. Haur jolasak.

3.3. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuen araberakoak.

3.4. PLANEAMENDUA ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipatu esparruan edozein esku-hartze egiteko, jabari publikoko lurretan eragiten duenez, beharrezkoa izango da dagozkion emakidak edo baimenak edukitzea eta Hiri Antolaketako Arau hauetan kasu bakoitzerako adierazitako zehaztapenetara lotzea.

Handitze lanik eginez gero, desjabetze sistema baliatuko da beharrezko diren lurrak eskuratzeko.

Handitze lanak egiteko aldameneko zonak hartzean, ez da beharrezkoa izango ez planeamendua aldatzerik ez lurzorua birsailkatzerik.